



*Oraina irabazi,
etorkizuna eraiki*
URTEKO TXOSTENA **2024**



AURKIBIDEA

>	AGURRAK, IKUSPEGIA ETA KOPURUAK	3
>	01 ORAINA IRABAZI	22
	> 01.1 GURE LEHIAKORTASUNA AREAGOTZEKO 10 PALANKA	23
>	02 GOBERNANTZA	38
>	03 DATU EKONOMIKOAK	40
>	04 ERANSKINAK	46



Orain ari gara Petronorren etorkizuna eraikitzen

Gure ikuspegi estrategikoan, oraina eta etorkizuna banaezinak dira: gure herriari aberastasuna eta ongizatea ematen dizkion enpresa bat izaten jarraitzeko ezinbesteko baldintza da hori. Ez da erraza mundu ziurgabe honetan etorkizuna ikuskatzea, botere geopolitiko eta teknologikoaren eraldaketak inoiz ezagutu gabeko aro historiko batean kokatzen ari baikaituzte. Beraz, ziurgabetasun-ingurune honetan, ekoizpenaren antolaketan aurrera egin behar dugu, lehiakorragoak izateko; halaber, gure ekoizpen-prozesua deskarbonizatzeko teknologietan inbertitu behar dugu, ekoizpenaren, mantentze-lanen, fidagarritasunaren eta segurtasunaren arloko teknologia digitalen alde egin behar dugu, prestakuntza etengabea sustatu behar dugu, eraldaketan dagoen energia-enpresa industrialia izateko estrategia sendotu behar dugu, non produktu konbentzionala eta molekula berriztagarria elkarrekin biziko baitira, eta marraztutako bidea finkatu behar dugu, datozen bi hamarkadetan molekula berdea negozio errentagarria izan dadin. Azken batean, 2019ko abenduan adostutako helburuan aurrera egin behar dugu, 25 urte barru isuririk gabeko Net Zero enpresa izan gaitezen.

Hori guztia, betebeharrak are handiago baten esparruan: beladunaldiarteko elkartasunez pentsatu eta jardungo dugu, hala egin ezean Petronor ez delako enpresa bizia izango, arkeologia industrialia baizik, etorkizun-goserik ez dagoenean gertatzen denaren adibide bizia.



ORAINA IRABAZI, ETORKIZUNA ERAIKI.



AGURRAK

Zeregin horretarako, erabateko konfiantza daukat Petronorren giza taldean, ausardia, erabakimena, lankidetzeta eta gaitasun teknikoa dauzkala erakutsi duelako. Elkarrekin arituz, dudarik gabe, gai izango gara Petronor euskal industriaren motor giltzarrietako bat izaten jarraitzea lortzeko. Petronorren akzionistak (Repsol eta Kutxabank) irmo ari dira 2050eko Petronorren alde.

Batzuen ustez, energia-trantsizioa esprint bat da, demagogiak eta nondik gatozen eta non gauden ahaztu izanak elikatutako esprint bat, duintasunez bizi nahi duten gizakien ozeano batean. Bada, hori uste dutenen aurrean, beti esan izan dut trantsizioa maratoi bat dela, ahaleginak, teknologiak, antolaketak, lankidetzak eta prestakuntza etengabeak funtsezko eginkizuna izango duten maratoi bat.

Deskarbonizazioa erronka handia da giza bizitzarako, 8.000 miloi lagun baino gehiago bizi baikara planetan, eta berrikuntza eta neutraltasun teknologikoa dira erronkan bizkarrezur. Halaber, deskarbonizazioa da Europak aktore industrial garrantzitsua izaten jarraitzeko bide bakarra, 500 miloi lagun inguru besterik ez baikara 8.000 milioi biztanleko mundu batean. Eta, gure kasuan, 2,3 milioi besterik ez gara, 500 milioi laguneko Europa batean. Hain txikiak izanik, lehiakorrak izaten jarraitzeko metodo bakarra dago: zientzia, teknologia, berrikuntza eta industria integratzea, Draghi txostenak adierazten duen moduan.



ORAINA IRABAZI, ETORKIZUNA ERAIKI.

Petronorrek beharrian hori sentitzen du, eta horregatik diot premiazkoa dela sektore publikoak eta sektore pribatuak elkarrekin jardutea, Europako sistema tekno-industrialean industria-sistema lehiakorra izan nahi badugu.

Guztia ez dago gure esku, hezkuntza-ekosisteman arreta jarriko duen konpromiso publikoa ere behar baita; izan ere, giza kapital prestatua behar dugu, eta helburu horretara bideratutako politika publiko sendo eta serioen bidez baino ez da posible izango.

Bukatzeko, bi aipamen esplizitu egingo dizkiot erregai berrien inguruan dugun estrategiari.

Lehenengoa: hidrogeno berdea ezinbestekoa da deskarbonizaziorako, eta, beraz, elektrolizagailuen teknologia menderatzea dagokigu; hori dela-eta, 2,5 MW-ko elektrolizagailuarekin hasi gara, eta, ondotik, 10 MW-koari helduko diogu, erregai sintetikoko demo planta elikatu dezan. Gero, 100 MW-koa etorriko da, findegiko jarduera elikatzeke. Elektrolizagailuetan egindako inbertsioak, beste behin ere, deskarbonizazioarekin konprometituta gaudela erakusten du: erregai berrien erreferentzia industrial da. Teknologia menderatzeko norabide onean goaz, eta teknologia berrietan aurrera egiten ari gara, hidrogeno berdearen ekoizpen-kostuak murrizteko helburuz.



ORAINA IRABAZI, ETORKIZUNA ERAIKI.

Bigarrena: erregai sintetikoa eta hidrogeno berdea garatzeko, teknologiaren aldeko apustua egin behar da, eta apustu horrek, Europako gainerako herrialdeetan bezalaxe, halabeharrez eskatzen du botere publikoek berrikuntza teknologikoak garatzeko benetako konpromisoa hartzea, prezioari eta kalitateari dagokienez industria-ekoizpena lehiakorra izan dadin. Trantsizioa teknologiaren aldeko apustua da, eta, oraindik orain, etorkizuna idatzi gabe dauka. Uste sendo horrekin, duela hiru urte Energy Intelligence Center-en sorrera babestu genuen, eta halaxe egiten jarraitzen dugu, bai garatzen jarrai dezan, bai Europan erregai berdeen erreferentziazko itsasargi bihurtu dadin. Petronorrek erabakimena eta konpromisoa erakutsi ditu. Sektore publikoak konpromiso hori sendotuko duelakoan nago.

2024a trantsizio-urtea izan da, Petronorrentzat erabakigarria izango den bosturteko bateranzko (2025-2030) trantsizio-urtea. Petronorren, etorkizunean sinesten dugu, eta horregatik lantzen dugu oraina.

EMILIANO LÓPEZ ATXURRA

Petronorreko presidentea





Konpainia eta sektore gisa, eraldaketa-erronka bete-betean gaude. Halere, badago albiste onik: aurretik ere egin dugu. Petronor duela 50 urte baino gehiago sortu zen, Santurtziko zentral termikora fuel-olioa hornitzeko instalazio gisa, baina, hainbat eraldaketaren ostean, batez ere mugikortasunerako erregaiei zuzendutako findegi bihurtu da.

Eraldaketa handi horietan azkena URF proiektuarekin etorri zen, ekoizpen-eskemak edo -programak hala behar duenean fuel-olioa ia-ia zerora murrizteko modua ekarri baitzuen. Halaber, produktu arinak eta merkatuan lehiakorak ekoizteko gaitasun handia eman zigun.

Orain, beste eraldaketa bat daukagu ate joka, eta, jorratzeko, bi eremutan egin behar dugu lan, aldi berean:

1. "Oraina lantzea. Findegi eraginkor, lehiakor eta jasangarriagoa lortzeko aktibatu behar ditugun palankak".

Lehenengo palanka operazioa da. **Operazioa** hobetzeko aukera-hobi handi bat da, eta aukera-hobi nagusietako bat energia-efizientziarena da. Aurten, emaitza onak izan ditugu eremu honetan, energia-intentsitatearen indizean eta lurrunkontsumoan gutxieneko historikoak lortu ditugu-eta.

Operazioaren eremuan ere proiektu garrantzitsuak burutu ditugu. Horietan artean, propanoa eta propilenoa destilatzekeo *splitter*-aren eraikuntza nabarmentzen da, purutasun handi-handiko propilenoa fabrikatu ahalko dugulako, merkatu petrokimikoan eskari handikoa hori. Hala, orain fabrikatzen dugunaren ordezkioa izango da, kalitate hobea eta prezio baxuagoa dituelako eta, esan bezala, merkatuan gero eta eskari handiagoa daukalako. Hori guztia, energia-kontsumo txikiagoa behar duen eta, ondorioz, CO₂-a murrizten duen prozesu baten bidez.

Asfaltoaren esportazioa da eraldaketa-prozesu honetan izandako aurrerapenaren beste adibideetako bat. 2024an, Europako eta Afrikaren iparraldeko beste herrialde batzuetara asfaltoa esportatzen hasi gara, eta, 2025erako esportazio-aurreikuspenen arabera, igoera handia izango dugu jarduera honetan.

Bigarren palanka **fidagarritasunarena eta mantentze-lanena** da. Fidagarritasunean izan behar dugun ikuspegiaren inguruan, iritzi partekatua daukagu: bikaintasuna izan behar dugu jomuga. Izan ere, horren arabera hobetuko da unitateen erabilgarritasuna, eta, horrekin, baita findegiaren errendimendua ere.

Pertsonei dagokienez, 2024an antolakundearekin hizketan jarraitu dugu. 2023ko urritik 2024ko martxora bitartean, 23 bilera egin ditugu, non 810 lagunek hartu baitute parte, hau da, plantillaren % 86k. Bilera horien ondoren, parte-hartzaileek Petronorren eraldaketa-prozesuaren gainean duten pertzepzioak nabarmen egin du hobera, eta haiexek identifikatu dituzte etorkizunera begirako lan-ildoak markatu behar duten erronkak, baita proposamenak egin ere. Azken batean, elkarrizketa zintzo horri esker lortuko dugu hain beharrezkoa dugun bide komuna aurkitzea.

Laugarren palanka **segurtasuna** da. 2024an, sekulako emaitzak izan ditugu arlo honetan, planteatutako helburuak bete ditugu-eta.

Ingurumena erronka iraunkorra da, eta, datozen garaietan, lehentasuna eman beharko diogu. Ur-kontuetan sutsu aritu gara lanean. Aurten, ekintza asko egin ditugu ura baliabide mugagabea ez dela ikusarazi eta horren gainean kontzientziatzeko: baliabide garrantzitsua da, eta arreta jarri behar diogu. CO2a murriztea beste lehentasun bat da.

Digitalizazioaren eremuan, 5G sare pribatu bat zabaldu dugu. Horrek erabilera-kasu ugariri ireki dizkio ateak; adibidez, abiadura handiko komunikazioei, bideo-transmisioei edo mantentze-lan iragarleetan aplikatutako sentzorikari.



Findegi konbentzionala izatetik multienergetikoa izatera iristeko trantsizioa

2. “Findegi konbentzionala izatetik multienergetikoa izatera iristeko trantsizioa”.

Erronka ikaragarria da. Instalazio molde berri baterantz egin behar dugu aurrera: ez gure produktuen oinarri izango den lehengaia, ez produktuak ekoizteko erabiliko dugun energia, ez fabrikatuko ditugun produktuak, ez produktuak fabrikatzeko prozesuak ez dira oraingoak izango. Hala, beste merkatu batzuk konkistatu behar ditugu, produktu berriak sortzeak berekin dakarrelako gure xede-merkatuak egokitzea. Hori dela-eta, bi proiektu mota biltzen dituen ibilbide-orri bat planteatzen dugu:

Oraingo unitateak eraldatzeko premiarekin zerikusia daukatenak, unitateekin produktu deskarbonizatuak fabrikatze aldera. Inbertsio-proiektu horiek, lehenengo fasean, unitateen baterako prozesaketa-gaitasuna areagotzea dute helburu, erregaien fabrikazioan bio produktuen ehuneko handiagoa txertatuz, eta, bigarren fasean, ekoizten ditugun erregaiak % 100 bio izatea da xedea.

Produktu berriak sortzeko **unitate berriak sortzearekin** lotuta daudenak. Jorratzen ari garen proiektuak bi ardatz nagusiren inguruan dabiltza: 1) Hidrogenoa eta eratorriak eta CO2-ren harrapaketa. 2) Ekonomia zirkularra.

Hidrogenoari buruz, nabarmendu beharreko lehengo kontua da dagoeneko hidrogenoa ekoizten dugula, mugikortasun-zehaztapenean, erakusketa-planta batekin. 2,5 MW-ko elektrolizagailua martxan jarri ondoren, 10 MW-ko bat egiten hasi gara erregai sintetikoaren plantarako, eta, etorkizunean, 100 MW-ko bat jorratzea espero dugu, findegirako. Europar Batasunak Europako Proiektu Interesgarri izendatu du azken hori.

CO2-a harrapatu eta erabiltzeari dagokionez, 10 MW-ko elektrolizagailuak sortutako hidrogeno berriztagarriarekin eta findegian harrapatzen dugun CO2-arekin ekoiztutako erregai sintetikoaren instalazioa hartuko duen partzelarako baimena lortu dugu dagoeneko. Proiektu horrek sekulako garrantzi estrategikoa dauka.



Zirkulartasunean, bestetik, mineralizazio-planta egiten hasi gara, zeinak errauts industrialak eta findegian harrapatutako CO₂-a aprobetxatzen baititu eraikuntzan erabiltzen diren eko-agregakinak fabrikatzeko.

Bestalde, 2024an lehen aldiz, Abantoko Teknologia Parkean egin dugu lan, EIC eraikinean. Eraikin hori, hodi baten bidez, gure elektrolizagailuak ekoitzitako hidrogeno berriztagarria hornitzen dion findegira lotuta dago, eta hidrogenoaren bidezko mugikortasunerako azpiegitura bat edukiko du. Azken finean, Petronorrek erregai berriztagarrien eremuan (hidrogenoa eta eratorriak) buru izateko daukan bokazioaren erakusgarria da hori, eta agerian jartzen du Petronorrek Ezkerraldea etorkizuneko sektoreetan berrindustrializatzeko ekosistema bat garatu nahi duela, irrikatzen dugun energia-trantsizioa posible egingo duten palanketako bati eraginda: erregai berriztagarriak ditugu xede.

JOSÉ GREGORIO LUQUE

Petronorreko kontseilari delegatua



ENPRESA

Segurua eta efizientzia handiko enpresa gara, ekoizpen- eta kudeaketa-prozesu guztietan etengabeko berrikuntzarekin konpromisoa erakusten duena; halaber, jardueraren ondoriozko inpaktuak txikiagotzen dituen auzokide onak gara, inguruko garapenaren eragile eta negozio-aukeren bilaketan erreferente.

Denborarekin eraldatzen joan gara, eta bigarren eraldaketa handitzat jo dezakegun horretan gaude oraintxe bertan, 2050ean zero isuri garbi izateko helburuz.

MULTIENERGETIKOA

Soluzio energetiko onenak garatzen ditugu.

SEGURUA

Ez dugu istripurik izaten.

EFIZIENTEA

Gutxiagorekin gehiago lortzen dugu.

BERRITZAILEA

Gauza berdinak egiten ditugu, baina bestelako moduan. Bestelako gauzak egiten ditugu.


JASANGARRIA

Bizilagun ona gara. Inpaktuak txikiagotzen ditugu, eta inguruneari garatzen laguntzen diogu.


ERALDAKETA ETENGABEAN

2050ean zero isuri garbi izateko konpromisoarekin, eraldaketa-prozesu sakonean gaude.

Ikuspegia: findegi deskarbonizatu baterantz



IRAGANA



ORAINA

ETORKIZUNA

...karbono gutxiko findegietarantz

LANGILEAK 940
GUZTIRA PERTSONA

124 M€


EUSKAL ENPRESEN FAKTURAZIOA
PETRONORRI (511 ENPRESA)

**SORTUTAKO
ZERGAK**

1.374 M€

BIZKAIKO FORU-OGASUNARI EMANDAKOAK

796 M€




≈ % 8,4
BILDUTAKO GUZTIAREN

GORDIN PROZESATUA

69,7 MILIOI
UPEL
(9,8 MILIOI TONA)

BILBOKO PORTUKO TRAFIKOA



13,8 MILIOI
TONA


% 39,9
BILBOKO PORTUKO
TRAFIKO GUZTIAREN


356
ITSASONTZI

GASOLINA

EKOIZPENA **1,7**
MILIOI TONA

GASOLIOA **4,4**
MILIOI TONA





EMAITZA

ZERGAK BARNE

72,2 M€

Mundu-mailako ekonomia erresiliente agertu da ekonomia-ingurune gogor honen aurrean, zeinak agertoki geopolitiko ziurgabea (Ukrainako gerra luzea, Ekialde Ertainean ugaritzen ari diren gatazkak, zehapenen igoera eta muga-zergen mehatxua barne hartuta) eta diru-politika murriztaileen inpaktua baititu ezaugarri nagusiak.

Hala, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera (2024ko urriko WEO), 2023an izandako shocken ondoren ekonomia globala egonkortu egin zen, urte hartan % 3,3 hazi baitzen eta 2024an % 3,2 haztea aurreikusten baitzen. Hazkunde hori, historiari begiratuta apala izan arren, pandemiaren aurre-aurreko aldian nagusitutakoaren antzekoa da.

Truke-tasari dagokionez, ziurgabetasun handiko inguruneak eta Estatu Batuetako ekonomiaren indar gero eta handiagoak bidea jarri zuten dolarra garaile ateratzeko. 2024aren hasieran, indar hori nolabait zuzendu egingo zela espero zen; alabaina, interes-tasen diferentziala ekonomia horren alde egoteak eta hauteskundeen emaitzek (muga-zergekin gainerako txanponen balioa galtzea eragingo zuten) dolar are indartsuago baterantz presio egiten jarraitzen dute. 2024ko abendua bukatutakoan, eurodolarren tasa 1,04an zegoen.



BRENT
KOTIZAZIOA
\$/BBL

2024	2023	2022
80,76	82,64	101,32



BATEZ
BESTEKO
TRUKE-TASA

2024	2023	2022
1,08	1,08	1,05




2024an, gordinaren batezbestekoa 80,8 \$/bl-koa izan da. Urtean, Brent gordinaren prezioak upel bakoitzeko 76 dolarren (\$/bbl) eta upel bakoitzeko 91 dolarren (\$/bbl) artean mugitu dira, hegakortasun- eta ziurgabetasun-maila altuekin, eta apirilaren hasieran iritsi zen gorenera (91,2 \$/bbl), Israelek eta Iranek Ekialde Ertainean sortutako gatazkaren ondoriozko arrisku geopolitikoaren igoerak bultzatuta. Irailean eta urrian, eskualdeko tentsioak gora egin zuen berriro ere, Israelen eta Iranen arteko eraso-trukearen ondoren; hala ere, energia-aktiboak xedetik kanpo utzi zituzten, eta agerian geratu ziren bai mundu-mailako esku-hartze diplomatiko izugarria, bai alderdiek gatazka areagotzeko zuten interes baxua. Urtearen amaiera aldera, Errusiaren eta Ukrainiaren arteko gerra gogortu egin zen, Estatu Batuek eta mendebaldeko beste herrialde batzuek irismen handiko misilak erabiltzea baimendu ziotelako Ukrainari eta, halaber, Errusiak berdin erantzun zuelako. Dena dela, prezioen igoera mugatuagoa izan da, eta funtsezko faktoreak gailendu dira.

6,30 \$




BATEZ BESTEKO
MARJINA
UPELA 2024





11,37 \$

BATEZ BESTEKO MARJINA
UPELA 2023




Jarduera. Hainbat jatorritako gordin prozesatua




”

Errusiatik etorritako gordinaren prozesamendua, 2021ean % 37koa zena, % 3ra jaitsi zen 2022an, eta % 0ra 2023an eta 2024an.





”


Gasolia eta gasolina ekoizpenaren % 64 dira, 2023ko balioen antzera



- GASOLIOA % 46,23
- GASOLINA % 17,68
- KOKEA % 8,31
- NAFTAK % 6,35
- FUEL-OLIOA + GOV % 14,30
- GLP % 1,88
- PROPILENOA % 0,68
- KERO ETA KARB. ERREAKTOREAK % 1,91
- ASFALTOAK % 1,49
- BESTELAKOAK % 1,17



BILBOKO PORTUA
PETRONORREN GUZTIZKO MUGIMENDUAK




”

Europak, multzoan hartuta, esportazioen % 84 biltzen ditu.


”

Petronorrek % 45,1 handitu ditu inbertsioak; 2022an, 102,5M eurokoak izan ziren.



”

Segurtasun-arloko inbertsioak gorabidean doaz aurrekontu-zikloan: 2022-2024ko aldian, 23,4M eurora iritsi dira.



- SEGURTASUNA 8,1
- BERRITZEA 12,1
- DESKARBONIZAZIOA 49,2
- AZPIEGITURA 5,9
- DIGITALIZAZIOA 2,8
- INGURUMENA 3,2
- HIDROGENOA 16,5
- BESTELAKOAK 0,8

INB. GUZTIRA
BESTE ARLO BATZUK 98,8M €

”

Deskarbonizazio-arloko inbertsioak, hidrogenoa barne hartuta, % 89,9 hazi dira 2023tik, non 34,7M euro izan baitziren.

19

EKINTZA

OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE

05

ALDAKETA
KLIMATIKOA



04

BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKOA



02

PERTSONAK



04

INGURUMENA



03

OPERAZIO
SEGURUA



01

ETIKA ETA
GARDENTASUNA



Petronorren Jasangarritasun Planak 19 ekintza barne hartu ditu, eta horietatik 13 Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen barruan daude. Planean jasotzen diren ekintza guztien % 90 baino gehiago burutu dira.

Oraina irabazi:

***gure lehiakortasuna
areagotzeko 10 palanka.***



Operazio bikaina



Fidagarritasuna eta
mantentze-lanak



Pertsonak



Segurtasuna



Ingurumena



Digitalizazioa eta
automatizazioa



Azpiegitura berriak



Kudeaketa-kontrola eta
finantzaketa-sistema



Adimen artifiziala



Proiektu berriak

01 Operazio bikaina



01
ORAINA

Jardun operatibo ona lortu dugu, eta halaxe ikusi da intzidentzien kostuaren murrizketan, aurrekontuaren % 3tik beherakoa izateko helburua bete baitugu; halaber, ezin hobeto erantzun diogu programen helburuari.

Produktu eta merkatu berriak garatzeko estrategian ere, asfaltoa esportatzen hasita aurrera egin dugu. Kimikarako bentzeniko kontzentratua fabrikatu dugu, eta, lehen aldiz, baita bionafta ere.

ZEROGAP programak emaitza bikainak izan ditu aurten; hala, 8 milioi euro baino gehiago aurreztu ditugu errendimenduen eta zatikapenen hobekuntzan. Bestetik, programazioan egindako hobekuntzek modua eman dute hileko programazioaren eta benetakoaren arteko aldea % 8 baino handiagoa ez izateko helburua betetzeko.

Produktu eta merkatu berriak



Kimikarako bentzenikoa



Bionafta



Asfalto-esportazioak

ZERO GAP programa



Intzidentzien kostua: < % 3



Programazio-desbiderapena: < % 8



Errendimendua: > 8M €



01 Operazio bikaina

ONELAB eraldaketa-proiektua abian jarri dugu, finketako eta kimikako zazpi laborategiekin batera. Antolaketa berriaren helburua lan moldeen efizientzia eta malgutasuna hobetzea da, bai eta kostu/kalitate ratioa murriztea ere. Horretarako, eskari analitikoa asebetetzeko modua eraldatu dugu.

2024ko emaitzak oso onak izan dira, laborategian 20.000 analisi gutxiago egitea lortu baitugu urtebeteen. Hau da, laborategiko analisisien kopurua % 10 murriztu da, eta, era berean, funtzionamendua optimizatu dugu, findegietako prozesuen estandarizazioan dagoeneko frogatu diren alferrikako probak egiteari utzi diogulako.

Programazio-prozesuan, hainbat hobekuntza egin ditugu. Besteak beste, erreminta digitalak eskuratu ditugu, instalazioa ondo dabilenean sortu beharko litzatekeen ekoizpena eta hilabeteko errealitatea alderatzeko. Halaber, ekoizpen-planak modelizatzeko programazio-ereduak txertatu ditugu, planetan eragiten duten aldagaiak aintzat hartzen dituztenak, erabaki hobeak hartzeko. Horrekin guztiarekin, % 8n kokatu dugu hileko ekoizpen-planaren aurreikuspenaren eta gauzatze-mailaren arteko desbiderapena, % 9ko helburua hobetuz.

**Laborategiko
analisiaren efizientzia
hobetzea**

% 10

**Hileko programazioaren
desbiderapena**

% 8

02 *Fidagarritasuna eta mantentze-lanak*



01
ORAINA

Etenaldietarako eredu berri bat ezarri dugu, eta 2024ko konbertsio-etenaldiak emaitza bikainak eman ditu. Zehazki, etenaldia “egun-galeradun zero gertakariarekin” gauzatu da, aurrekaririk gabekoa hori. Etenaldian egindako esku-hartzeen ondorioz findegiko ekoizpenari eragin dioten gertakarien kopurua “zerokoa” izan da, eta aurreikusitako helburua bete da. Epeari dagokionez, 56 egunetan gauzatu da, helburua 59koa zela, eta, gainera, hasiera batean ezarritako 39M euroko aurrekontutik behera. Bestetik, zortzi etenaldi txiki egin ditugu, eta zazpi oso-osorik bete dituzte helburuak.

Ikuskapen-metodo eta -teknika berriak ezarri ditugu, sentsoreen eta monitorizazioaren bidezkoak, eta, horri esker, findegiko ekipamenduetan gertakariak aurreikusi ahalko ditugu.

Mantentze-lanen arloan, irailean konbertsio-arloko efizientzia-pilotu bat abiatu dugu, eta energia-efizientzia kontrolatzeko neurriak ezarri, 300.000 eurotik gorako inpaktu ekonomiko positiboarekin (urtean).

**Finkatutako helburuak bete
dituzten etenaldien kopurua**

7/8



Aliatuak programa Petronor osatzen dugun pertsonak enpresaren eraldaketa-prozesuan gehiago inplikatzeko erreminta ezin hobea dela ikusi dugu. Plantillaren % 86k hartu du parte, eta konpainiaren eraldaketa-prozesuko inplikazio-maila bikaina izan da.

Hiru eskola formatu jarri ditugu martxan: Liderren eskola, talentua garatzeko eta antolakundean lidergoa babesteko, pertsonen eta taldeen buru izateko dugun gaitasuna garatuz, enpresaren eraldaketaren funtsezko ardatz gisara; Giza Faktorearen eskola, egunerokoan eta ezusteko egoera aldakorretan jarduteko gaitasunak garatzeko, eta Net Zero School, deskarbonizaziora eramango gaituen energia-trantsizioa sustatzeko behar diren ezagutzak emateko Petronorreko profesionali.

Zenbait antolaketa-neurri hartu ditugu, hala nola irteera-plana 62 urteetara zabaldu dugu, eta 2024ko OPPC prestakuntzara sei emakume sartzea lortu (guztizkoaren % 24), belaunaldi-erreleborako palanka gisara, operazio-eremura gero eta emakume gehiago sartzeko helburuz.

ALIATUAK programa

70 aliatu

810 parte-hartzaile

% 86 plantillaren

Laneko osasunaren arloan, hauek dira datu esanguratsuenak:

- Detekzio goiztiarrerako ezarritako prebentzio-programekin jarraitu dugu: prostatako, maskuriko eta koloneko minbiziaren eta tiroide-patologiaren detekzioa.
- Osasuna sustatzeko eta osasunean trebatzeko kanpainak egin dira, hala nola elikadura osasungarriko lantegiak (450 pertsonak parte hartu dute) edo dieta mediterranea sustatu eta gorputz-masaren indizea kontrolatzeko lantegiak.
- COVIDaren berriarazko kontrola egiten jarraitu dugu; % 82 murriztu da, 2022aren aldean.
- 20 pertsona trebatu dira larrialdi medikoen koordinazioan.

 **1.002**
CONSULTAS
MEDICAS

 **27**
CASOS
COVID

903
RECONOCIMIENTOS
MEDICOS

 PROGRAMAS
PREVENCIÓN
 ACTIVIDAD
PREVENTIVA

04 Segurtasuna

Istripuen guztizko maiztasun-indizea (baja behar izan duten eta behar izan ez duten istripuen kopurua, lan egindako milioi orduko) 0,82koa izan da, eta, beraz, urteko 0,99ko helburua gainditu da. Halaber, egun-galeradun istripuen kopurua 3ra jaitsi da, iazko 6etatik behera.

Langileek findegiko prebentzio-programetan eta -jardueretan izandako parte-hartzeak ere hobera egin du, nabarmen egin ere, 2023ko datuekin alderatuta. Hala, 13.822 prebentzio-jarduera egin dira guztira (2023an, 9.703), eta segurtasuna prebenitzeko 6.601 ekintza egin dira; bada, langileen % 73k hartu dute parte ekintza horietan (2022an % 67k, eta 2021ean % 56k).

TIER 1 + TIER2 maiztasun-indizea (Tier 1 eta Tier 2 atalasearen prozesu-segurtasuneko gorabeheren kopurua, lan egindako milioi orduko) 0,30ekoa izan da; hortaz, zertxobait hobetu da iazkoa (0,60).

	Valor	Objetivo
Índice IFT de accidentes de trabajo (*)	0,82	< 0,99
Índice PSIR seguridad de procesos (*)	0,30	<0,41



2024an, **CO2a murrizteko** helburuak lortu ditugu: 20.000 CO2 tona baino gehiago murriztu ditugu, urteko helburua 17.000 tonakoa izanik. Horrekin, 2019an marraztutako isuri-murrizketaren bidea betetzen ari gara.

Uraren kudeaketan, **Water Zero** programaren bidez, ur freskoa modu efizienteagoan erabiltzea, kontsumoa murriztea eta erabilera optimizatzea bilatzen dugu, alferrikako kontsumoa zerokoa izan dadin.

Proiektu horri esker, “uraren bidea” marrazten ari gara, hau da, findegia eraldatzeko ibilbide-orrira lotutako inbertsio berriek ur-kontsumoari nola eragingo dioten zehazten.

Hala, 2024an, uraren balantzea eguneratu dugu, DARean eta 3. dorrean beharrezko neurgailuak jarri ditugu, hozketa-dorreetan berreskuratutako uraren ehunekoa % 31,6ra igo dugu, eta ur garbiaren urteko kontsumoa murriztu dugu.



% agua reutilizada
/ total

31,6 %



Emisiones CO2

-20,1 Ktn



Gure prozesuetara jatorri biologikoko hondakinak sartzen jarraitu dugu. 2024an, hondakin horien 213.509 tona sartu ditugu, 2023an baino % 10 gehiago. 164.520 tona gasolioen lerrora sartu ditugu, eta 48.898 gasolinen lerrora.

Jatorri biologikoko hondakin horiek Jasangarritasun Eskemetan jasotzen diren baldintzak betetzen dituzte. Petronorrek ziurtagiri horiek dauzka: ISCC EU eta SNVS dira (Jasangarritasuna Egiaztatzeko Sistema Nazionalea).

Beste urte batez, eta dagoeneko 24 dira, Petronorrek ISO 14001:2015 arauaren estandarrean oinarritutako ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria mantendu du.

2024an, Muskizko udalerriko Mello mendian 2019an sute batek erretako azalera basoberritzeko boluntariotza-ekintzetan lagundu dugu. 2023an, 20.000 metro koadroko azalera landatu da espezie autoktonoekin (haritzak, pagoak, gaztainondoak...), eta landaketa horretan 700 ikaslek eta boluntariok baino gehiagok parte hartu dute. Guztira, 800 zuhaitz baino gehiago landatu dituzte.

Sartutako lehengai berriztagarriak

213.509

06 Digitalizazioa eta automatizazioa

2024an, lehenengo 4G/5G sare pribatua zabaldu genuen, findegian gai hauen inguruko teknologiak erabili eta garatzeko, besteak beste:

- Ikuskapenatarako robot autonomoak. 2024an, "Makoki" robotari beste bi gaineratu zitzaizkion, neurketa-gaitasun handiagoak dauzkatenak.
- Etenaldietan, intzidentzien ebazpenean eta produktuen baliozkotzeetan aditua den urrutiko euskarria.
- Irudi termikoen denbora errealeko analitika, labeen efizientzia optimizatzeko.
- Analitikadun sentsoareak, errotatibetan prebentziozko mantentze-lanak egiteko.
- Pertsonen segurtasunerako sentsoareak, langileek daramatzaten sentsoareak segurtasun-sistema eta -taula zentralekin konektatzen dituztenak.
- Aktiboen geoposizionamendu aurreratua, gertakariak eta bestelako prozesuak hobeto kudeatzeko.

5G sarean egindako inbertsioa
3 M €



07 Azpiegitura berriak



01
ORAINA

2024an, bi jarduketa nagusirekin garatu dugu findegiko azpiegitura-plana. Jarduketak 2023an abiatu ziren, eta ekitaldi honetan bukatu: bulego nagusi berriak eta kontratisten eraikineko goiko solairua.

Hori guztia, gure lan-ingurunea hobetzeko, lan-ingurunea lan molde eta metodo berrietara egokitzeko eta bilakaera etengabea dagoen findegi moderno baten irudia proiektatzeko helburuz.

2023-2024an azpiegiturretan egindako inbertsioa
13,5 M€



08 Kudeaketa-kontrola eta finantzaketa-sistema

2024an, antolakundeari gure emaitzetan eragiten duten aldagaiei buruzko gakoak emateko reporting-sistema bat garatu dugu, baliabideak eta prozesuak eraginkorrago kudeatu ahal izan ditzagun.

Deskarbonizazio-proiektuen finantzaketa-eredu oso bat atontzen ari gara, honako hauek konbinatzen dituen: dirulaguntzak, kenkari fiskalak, tokiko, Estatuko eta Europako banku publiko eta pribatuen finantzaketa, proiektuetarako lankidetza eta funts propioak. Proiektu bakoitzaren finantzaketa-eskema proiektu horren ezaugarrietara (hala nola inbertsioaren zenbatekora, gauzatzeko denborara, garapen teknologikoaren mailara eta aurreikusitako errentagarritasunera) ahalik eta gehien egokitzea da helburua.

Finantza-sistema



Zerga-arinketa



Banku-finantzaketa



Diru-laguntzak



Lankidetza



Funts propioak



09 Adimen artifiziala

Adimen artifizial sortzailearekin lan egiten hasi gara, eraginkortasun ekonomikoan inpaktu handia duten erabilera-kasuak identifikatzeko eta balio erantsi txikia edo ezdeusa duten eta modu autonomoan egin daitezkeen jarduera errepikakorrak murrizteko helburuz.

Horretarako, Petronorren barruan hainbat alderdiren inguruan (adibidez, ekoizpen-plangintza eta -programazioa, mantentze-lanak eta fidagarritasuna eta findegiko prozesu-unitateen operazioa) ezagutza handia duten langileen laguntza jasotzen dugu. Adimen artifizial eremu hauetan guztietan aplika daiteke:

Adimen artifizial sortzailea aplikatzeko lehentasunezko eremuak



Planifikazioa



Programazioa




Mantentze-lanak



Fidagarritasuna



Prozesu-unitateen eragiketa



10 *Proiektu berriak*



01
ORAINA

EFIZIENTZIA

Gaurko findegia efizienteagoa egitea, kontsumoak eta isuriak murriztuz.

ORAINGO UNITATEAK ALDATZEA

Bizitza baliagarria luzatzeko, karbono gutxiko produktu berriak ekoitziz.

INDUSTRIA- PROIEKTU BERRIAK

Hidrogenoa, erregai berriztagarriak eta beste produktu deskarbonizatu batzuk ekoizteko.





EFIZIENTZIA



ORAINGO
UNITATEAK
ALDATZEA



INDUSTRIA-PROIEKTU
BERRIAK

2024an, proiektu hauek gauzatze-fasera sartu dira, arlo bakoitzean:

- ◀ **A+** **Preflash dorrea, Findegiko Gordinaren Unitatean (1):** plater-dorre berri batean banantzen da gordinaren zati arina, eta nafta zatikatzeko atalera bidaltzen da zuzenean, unitateko labetik igaro behar izan gabe; horrela, labeko erregaia aurrezten da. Aurrekontua **15M eurokoa da**, eta 2025eko Q2n martxan jartzea aurreikusi da.
- ◀ **A+** **“Beroa berreskuratzeko”** proiektua HD3n. Hidrocracking Arineko Unitatean (HD3) barne-korronteen hondar-beroa aprobetxatuta lurrina sortzen duten bi galdara txiki jarriko dira. Aurrekontua **2,6M eurokoa da**, eta 2025eko Q1ean martxan jartzea aurreikusten da.
- ⚙️ Desulfurazio-gailuetan baterako prozesaketa areagotzea. **Gasolioen lau desulfurazio-gailuetan (G1/G2/G3/G4) inbertitzea**, jatorri biologikoko kargaren (animaliak eta landareak) eta karga fosil konbentzionalaren baterako prozesaketa gehienez ere % 10era areagotzeko. Aurrekontua **4,6M eurokoa da**, eta 2025eko Q2n jarriko dira martxan.
- ⚙️ **Propano-propileno zatia banandu eta garbitzeko unitate berriak gaitasuna du polimero mailako propilenoa ekoizteko**, ARA (Amsterdam-Rotterdam-Anberes) merkatuko zehaztapenak betez, >% 99,5eko purutasuneko, merkatu petrokimikorako. Unitate berriak bero-ponpa edukiko du (energia-efizientzia), eta, horrela, CO2-ren isuriak nahiz ur freskoaren kontsumoa murriztuko dira. Aurrekontua **58M eurokoa da**, eta 2026ko Q1ean martxan jartzea aurreikusten da.
- ⊕ **Erregai sintetikoak erakusteko instalazioak 138M euroko** aurrekontua du, eta 2026ko Q4n martxan jartzea aurreikusi da.
- ⊕ **Mineralizazio-instalazioak 20 M euroko** aurrekontua du, eta 2026ko Q3n martxan jartzea aurreikusi da.
- ⊕ **Bilboko Portuko 10 MW-ko elektrolizagailuak 40M euroko** aurrekontua du, eta 2026ko Q4n martxan jartzea aurreikusi da.

Gobernantza

ADMINISTRAZIO- KONTSEILUA

PRESIDENTEA

Emiliano López Atxurra jauna
KONTSEILARI DELEGATUA
José Gregorio Luque González jauna

KONTSEILARIAK

Juan Abascal Heredero jauna
Ana Beobide Laucirica andrea
Juan Antonio Carrillo De Albornoiz Tejedor
jauna
Juan Andrés Díez de Ulzurrun jauna
Pedro Fernández Frial jauna
Maximiliano Jacob Urruticoechea jauna
Andreu Puñet Balsebre jauna
Cristina Sanz Mendiola andrea
José Manuel de la Sen Larrea jauna (*)
Roberto Velasco Barroetabeña jauna
José M^a Zalbidegoitia Garai jauna

IDAZKARI KONTSEILARIA

Jose Ignacio Zudaire Arana jauna

IDAZKARIORDEA

Raquel María Ruiz Juárez andrea

AUDITORIA- BATZORDEA

PRESIDENTEA

Juan Andrés Díez de Ulzurrun jauna

BATZORDEKIDEAK

Pedro Fernández Frial jauna
Roberto Velasco Barroetabeña jauna

IDAZKARIA

José Ignacio Zudaire Arana jauna

ZUZENDARITZA

PRESIDENTEA

Emiliano López Atxurra jauna

KONTSEILARI DELEGATUA

José Gregorio Luque González jauna

KONTSEILARI DELEGATUAREN ONDOKOA

José Ignacio Zudaire Arana jauna

ZUZENDARI EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Gonzalo Díez-Heppe Gonzalez jauna

PERTSONEN eta ANTOLAKETAKO ZUZENDARIA

Ainhoa Rivera Azcoitia andrea

FIDAGARRITASUN, INGENIARITZA ETA MANTENTZE LANEN ZUZENDARIA

Oscar Gómez Cruz jauna (*)

EKOIZPENEKO ZUZENDARIA

Matilde García Echevarría andrea

SEGURTASUN, INGURUMEN ETA KALITATEKO ZUZENDARIORDEA

Xavier Fava Ibañez jauna (**)

INGENIARITZAKO ZUZENDARIA

Elías Unzueta Etxeita

BERRIKUNTZA ZUZENDARIA

Manuel Núñez Marcos jauna

(*) 2024ko otsailetik

(**) 2024ko ekainetik

(*) 2024ko uztailaren 18ra arte


Datu ekonomikoak

DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK EMAITZAK

MILIOI €	2024	2023	2022
NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	7.046,0	7.396,6	10.074,8
USTIAPENAREN EMAITZA	48,4	327,2	623,3
EBITDA	151,1	428,6	990,1
EKITALDIKO EMAITZA	72,2	348,9	470,9

”
*2024ko emaitza 72,2M eurokoa
izan da, zergak barne.*

FINDEGIKO JARDUERA




MERKATU NAZIONALAREN
ETA KANPOKOAREN ARTEKO PROPORTZIOA

TONAK, MILAKOTAN	2024	2023	2022
SALMENTAK GUZTIRA	9.976	9.522	10.238
MERKATU NAZIONALERA (%)	% 65,1	% 66,9	% 69,4
KANPOKO MERKATURA (%)	% 34,9	% 33,1	% 30,6

”

2022tik, Petronorrek % 4,3 handitu du kanpoko merkatura egindako salmenten ehunekoa.

DATU
EKONOMIKO
FINANTZARIOAK
BALANTZEA




AKTIBOA GUZTIRA

	MILIOI €	2024	2023	2024/2023 ALD. %
AKTIBOA GUZTIRA		2.928	3.096	-% 5,4
AKTIBO EZ-KORRONTEA		1.563	1.406	% 11,2
AKTIBO KORRONTEA		1.365	1.690	-% 19,2

”

Gutizko aktiboa % 5,4 murriztu da, eta 2.928 eurokoa da.

RATIO
FINANTZARIOAK




ERABILITAKO KAPITALA

	MILIOI €	2024	2023	ALD. %
ZOR GARBIA		0,0	0,0	% 0
ERABILITAKO KAPITALA		2.101	2.170	-% 0,3
ZOR GARBIA/ERABILITAKO KAPITALA %TAN		% 0,0	% 0,0	% 0



Zor garbia zerkoa izan da 2022-2024ko aldian.

ERREFERENTZIA
ERREFERENTZIA
FINKETA-
NEGOZIOARENA



	MAGNITUDEAK	2024	2023
BRENT DTD. Urteko batezbestekoa	\$ / UPEL	80,76	82,64
BRENT DTD. Urte amaieran	\$ / UPEL	74,65	75,59
\$ / € urteko batezbestekoa	\$ / EURO	1,082	1,080
\$ / € urte amaieran	\$ / EURO	1,039	1,105

”

BRENT DTDren prezioa % 2,3 jaitsi da urteko batezbestekoan.

Eranskinak

LEHENGAIEN ESKURATZEAK

”

*2021ean Errusiatik lortzen
genuen lehengaiaren % 24, eta
2023an eta 2024an % 0.*

JATORRIA	2024		2023	
	TONA	%	TONAK	%
ERRUSIA	0	0	0	0
KAZAKHSTAN	215.024	2	700.507	7
MEXIKO	2.014.189	21	1.828.430	20
IPAR ITSASOA	713.670	8	1.109.473	12
MENDEBALDEKO AFRIKA	1.213.999	14	631.323	6,5
EKIALDE HURBILA	696.566	7	1.266.417	14
VENEZUELA / BRASIL	3.584.325	36	2.509.640	27
AFRIKAKO IPARRALDEA	612.561	5	164.952	2
KANADA ETA ESTATU BATUAK	773.500	8	890.056	11
BESTE JATORRI BAT	0	0	50.148	0,5
GORDINAK GUZTIZKO PARTZIALA	9.823.834	100	9.150.946	100
BESTE LEHENGAI BATZUK	238.632		504.371	
GUZTIZKOA OROKORRA	10.062.466		9.655.317	

EKOIZPENAREN LABURPENA

”


Merkatuaren bilakaerak zehaztu duenez, 2024an gasolina-ekoizpenaren ehunekoa zertxobait gehiago murriztu da gasolioarena baino, zeina ia-ia egonkor baitago eta termino absolutuetan igo egin baita.

PRODUKTUA	2024		2023	
	TONAK	%	TONAK	%
GASOLIOA	4.400.570	46,23	4.218.437	46,55
FUEL-OLIOA+GOV	1.360.774	14,30	965.852	10,66
GASOLINA	1.683.211	17,68	1.696.677	18,72
NAFTAK	604.168	6,35	716.221	7,90
ASFALTOAK	142.079	1,49	101.640	1,12
GLP	178.589	1,88	173.825	1,92
PROPILENOA	65.185	0,68	71.728	0,79
KERO ETA KARB. ERREAKT.	181.418	1,91	183.079	2,02
KOKEA	790.858	8,31	811.223	8,95
BESTE BATZUK (*)	111.362	1,17	123.452	1,36
GUZTIRA	9.518.214	100	9.062.134	100

(*)Barne hartzen ditu sufrea eta karbono dioxidoa

ENERGIA ELEKTRIKOA

GWH	2024	2023
SORTUTAKOA	533,6	547,9
KONTSUMITUTAKOA	648,0	643,9



SORTUTAKO ENERGIA

533,6 GWH

”


*Sortutako eta kontsumitutako energia-ratioa
% 82,2koa da.*

INBERTSIOAK

MILIOI €	2024	2023
BERRITZEA	12,2	6,3
AZPIEGITURAK	5,9	7,5
INGURUMENA	3,2	1,8
SEGURTASUNA	8,2	7,6
DIGITALIZAZIOA	2,8	2,7
DESKARBONIZAZIOA	49,3	22,7
HIDROGENOA	16,5	12,1
BESTE BATZUK	0,8	4,6
GUZTIRA (mantentze- lanik gabe)	98,9	65,3
MANTENTZE-LANAK	47,9	37,3
GUZTIRA	146,8	102,6

Inbertsioak % 45,1 areagotu dira.

MUGIMENDUAK ITSAS TERMINALEAN




SARRERAK (t)	2024	2023
GORDINA	9.769.562	9.149.308
BESTE LEHENGAI BATZUK	133.117	414.641
GUZTIZKO PARTZIALA	9.902.679	9.563.949
BESTE PRODUKTU BATZUK	83.181	162.085
SARRERAK GUZTIRA	9.985.860	9.726.034

IRTEERAK (t)	2024	2023
ESPORTAZIOA ETA KABOTAJEA	3.255.709	3.232.518
MUGIMENDUAK GUZTIRA	13.241.569	12.958.552



Itsas terminaleko mugimenduak % 2,2 areagotu dira guztira.

LABURPENA
MERKATUAK




ERREGAIEN SALMENTA

ERREGAIEN SALMENTA	2024		2023	
	TONAK	%	TONAK	%
MERKATU NAZIONALA	6.493.719	% 65,1	6.374.010	% 66,9
KANPOKO MERKATUA	3.482.781	% 34,9	3.148.045	% 33,1
GUZTIRA	9.976.500	% 100	9.552.055	% 100

”

Erregaien guztizko salmenta % 4,4 igo da, eta kanpoko merkaturako salmentak % 10,6.

ERREGAIEN MERKATU NAZIONALA



- RCPP SA
- REPSOL PETRÓLEO SA
- REPSOL BUTANO SA
- REPSOL BUTANO SA
- BESTE OPERADORE BATZUK


ERREGAIEN SALMENTA

MERKATU NAZIONALEKO SALMENTAK, BEZEROEN ARABERA	2024		2023	
	TONAK	%	TONAK	%
RCPP SA	2.447.698	% 37,7	2.535.101	% 39,8
REPSOL PETRÓLEO SA	2.087.980	% 32,1	1.698.508	% 26,6
REPSOL BUTANO SA	166.137	% 2,6	175.546	% 2,7
REPSOL LUBRICANTES ESPECIALIDADES SA	198.538	% 3,1	201.526	% 3,2
BESTE OPERADORE BATZUK	1.593.366	% 24,5	1.763.329	% 27,7
GUZTIRA	6.493.719	% 100	6.374.010	% 100



Erregaien merkatu nazionaleko guztizko salmentak % 1,9 igo dira.

MERKATU NAZIONALA PRODUKTUEN ARABERA




PRODUKTUEN SALMENTA

SALMENTAK	2024		2023	
	TONAK		TONAK	
GASOLIOAK	3.792.696	% 58,4	3.820.484	% 59,9
GASOLINAK	972.354	% 15,0	1.005.337	% 15,7
FUEL-OLIOAK	833.218	% 12,8	662.707	% 10,4
ASFALTOAK	105.188	% 1,6	99.546	% 1,6
LPG	166.137	% 2,6	175.546	% 2,7
SUFREA	95.464	% 1,5	102.070	% 1,7
KEROSENOA	166.727	% 2,6	195.023	% 3,1
KARBONO DIOXIDOA	21.048	% 0,3	22.647	% 0,4
KOKEA	340.886	% 5,2	290.740	% 4,5
GUZTIRA	6.493.719	% 100,00	6.374.010	% 100,0

”

Gasolioaren eta gasolinen salmentak guztizkoaren % 73,4 dira, 2023ko ehunekoaren antzera (% 75,6).

KANPOKO MERKATUA PRODUKTUEN ARABERA



PRODUKTUEN SALMENTA


SALMENTAK	2024		2023	
	TONAK	%	TONAK	%
FUEL-OLIOAK	566.873	% 16,3	423.976	% 13,5
GASOLINAK	795.423	% 22,8	786.978	% 24,9
NAFTAK	611.605	% 17,6	752.593	% 21,9
LPG	69.515	% 2,0	70.835	% 2,3
GASOLIOAK	926.212	% 26,6	627.760	% 10,9
KOKEA	481.423	% 13,8	485.903	% 15,5
ASFALTOAK	31.729	% 0,9	0	
GUZTIRA	3.482.781	% 100,0	3.148.045	% 100,0

”

Gasolioaren eta gasolinen salmenta % 49,4koa da, eta 2023an % 44,8koa.



ESPORTAZIOA MERKATUEN ARABERA



ESPORTAZIOEN HELMUGA

”

*Europak, multzoan hartuta, esportazioen
% 84 biltzen ditu*

HELMUGA	2024		2023	
	TONAK	%	TONAK	%
EUROPA	2.464.577	% 71	2.172.459	% 69
AEB	234.196	% 7	731.935	% 23
AFRIKA	156.990	% 5	77.183	% 2
ASIA	115.328	% 3	158.521	% 5
ERDIALDEKO AMERIKA/KARIBE	0	% 0	0	% 0
UK	382.846	% 11	0	% 0
GIBRALTAR	79.120	% 2	7.947	% 1
HEGO AMERIKA	49.723	% 1	0	% 0
GUZTIRA	3.482.781	% 100	3.148.045	% 100,0

| SORTUTAKO ZERGAK

1.374 M€
SORTUTAKO ZERGAK

2024AN OGASUNEI EGINDAKO ORDAINKETAK MILIOI €

BIZKAIKO FORU OGASUNA	796
BESTE OGASUN BATZUK	566

UDALEI EGINDAKO ORDAINKETA 2024 MILIOI €

TOKIKO ZERGAPETZEA GUZTIRA	12
GUZTIRA, SORTUTAKOAK	1.374

”

*2023tik 2024ra, Petronorrek 2.982M euroko zergak
sortu ditu.*

